



EBAZPENA HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEARENA, HEZKUNTZA SAILAREN MENDE DAUDEN UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASTETXEEK HEZIKETA-ZIKLOAK IZAN EZIK, 2026-2027 IKASTURTEAN LINGUARTEA EKIMEN BARRUAN HIZKUNTZA PROIEKTUARI LOTUTAKO IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA JARDUERAK EGIN DITZATEN.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak adierazten duen bezala, euskal hezkuntza, betiere euskara ardatz izanik, sistema eleaniztuna da; bi hizkuntza koofizialez eta gutxienez, atzerriko hizkuntza batez egituratzen delako. Honek, herritarren gizarte-kohesioa eta komunikazio-kompetentzia bermatzen eta bideratzen ditu bi hizkuntza ofizialetan. Lege honen xedea da ikasle guztiek, familia-jatorria edozein izanda, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzeaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza bat ere erabiltzea.

Hainbat hizkuntzatan komunikatzea funtsezkoa da egungo gizartearen garapenean. Europako Hezkuntza Esparruaren alorrean, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeak hezkuntza eta prestakuntza mugek oztokatzen saihesten du, nazioartekotzea zein mugikortasuna bultzatzen baititu. Gainera, beste kultura batzuk deskubritzearekin batera, ikasleen ikuspegiak zabaltzen ditu.

Era berean, indarrean dagoen curriculumak, 77/2023 Dekretuak, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duena, Europako Kontseiluak emandako gomendioak jasoz, hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna eta kompetentzia eleaniztuna garatzeko beharra arautzen du. Horrela, ikasleek hezkuntza-etapa guztietan irteera-profileen bizitzarako eta etengabeko ikaskuntzarako behar dituzten kompetentziak zehazten dira; hizkuntza komunikaziorako kompetentzia eta kompetentzia eleaniztuna, hain zuzen. Bi kompetentziak eskuratzeko, beharrezkoa da ahoz, idatziz zein zeinuz, era koherentean eta modu egokian jardutea hainbat esparru eta testuingurutan. Horrek esan nahi du bi hizkuntza ofizialak erabili behar direla, euskara ardatz hartuta beti, atzerriko hizkuntzekin batera, komunikatzeko eta ikasteko. Horrek alderdi komunikatiboa ez ezik, inguruko hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutzea, ulertzea eta baloratzea ekarriko luke, alderdi historikoak eta kulturartekoak adieraziz.

Hezkuntza komunitate osoaren ardura da ikasleei profil eleaniztuna, kulturartekoa zein multimodala, garatzen laguntzea, mundu global eta kulturazintun batean integratu eta euskararen erabilera aktiboarekin konprometitu daitezen, eta euskal kultura ezagutu eta hura garatzen eta eguneratzen lagun dezaten, aldi berean beste hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko jakin-mina eta motibazioa landuz. Dekretuak, bereziki, hezkuntzako profesionalen komunikazio- eta metodologia-gaitasuna hobetzea bilatuko du, eta hizkuntzen ikaskuntza eta haien erabilera bideratzeko modu berri batzuk ikertzea eta garatzea sustatuko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko delako 17/2023 Legeak, Hezkuntzarenak, IV. Tituluko II. kapituluaren Euskal Hezkuntza Sistemako hizkuntza-proiektuen gaiari eta hizkuntzen tratamendu integratuari eta haien alderdi metodologikoei heltzen die, eta, amaieran, Autonomia Erkidegotik kanpoko ikasleei aplikatu dakizkiekeen arau espezifiko batzuk



jorratzen ditu, bai eta ikasleen hizkuntzak eta kulturak sustatzeko neurri espezifiko batzuk ere testuinguru kulturantzun nabarmena duen hezkuntza batean. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratu behar da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen II. tituluko II. kapituluan ezarritakoaren arabera, unean unean indarrean dauden hizkuntza-ereduen sisteman oinarrituta, eta eredu horien edozein garapen edo eguneratze erregelamendu bidezko garapenaren bidez egingo dela ziurtatuz eta, hortaz, eskubide eta printzipio berberak bermatuz. Erregelamendu bidezko garapen horren arabera, ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-proiektuetan, hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta ikasleek hizkuntzekiko izango duten jarrera positiboa planifikatu behar dira: kontuan hartuta inguru bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistiko eta sozioekonomikoak zein ikasleen eta haien familien ezaugarri espezifikoak barne direla, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran aipatutako Euskal Hezkuntza Legeak eskatzen dituen hizkuntza-maila eta gaitasunak eskura ditzaten. Eginbide honetan Ikastetxeko hizkuntza-proiektuak ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpide pedagogikoak garatu behar ditu.

Arestian aipatu helburuak eskuratzeko deialdi honen bitartez Hezkuntza Sailak irakasleek hizkuntzen didaktikan duten konpetentzia hobetzea sustatzen du ikastetxe bakoitzak berariazko Hizkuntza Proiektua gara eta dinamiza dezan, hizkuntzakoak ez diren arlo eta jakintzagai guztietako zein hizkuntzako irakasleek hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia modu integralean eta sistematizatuan ikastetxeari egokitutako prestakuntza jarduerak antolatzeko.

Hori horrela izanik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. - Deialdiaren xedea.

Linguarte deialdi honen xedea da 2026/2027 ikasturterako Hezkuntza Sailaren mendeko Ikastetxe Publikoetan Hizkuntza Proiektua garatzeko irakasleentzako prestakuntza eta hura gelan inplementatzeko baliabideak diruz laguntzea, esparru didaktiko-metodologikoan sakontzeko eta euskal kulturaren zein hezkuntza soziolinguistikoan aurrerapausoak emateko.

Deialdi honetan hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuak sustatuko dira, bi jardun-ildo hauetan:

A jardun-ildo: Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektuaren harira, berrikuntza-proiektua, hizkuntza komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna garatuko dituen, hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren bidez, bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuta, betiere euskararen irakaskuntzari, euskal kulturaren transmisioari eta hezkuntza soziolinguistikoari lotuta. (I Eranskina)

B jardun-ildo: Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektuaren harira, berrikuntza-proiektua atzerriko hizkuntza komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna garatzen dituen, eta atzerriko hizkuntzetako curriculum-arloen irakaskuntzan ekimen berritzaileetan sakontzen duena: AICLE/CLIL zein Pluriliteracies for deeper learning metodologiaren bidez, diziplinarteko proiektuen bidez, eremuka lan eginez... (II. eranskina).



Deialdi honi lotutako prestakuntzaren eta horrekin lotutako proiektuen helburua da hezkuntza komunitate bakoitzak, ikasleen komunikaziorako kompetentzia eta testuinguru soziolinguistikoa ezagututa, Hizkuntza Proiektua garatzen laguntzea. Horretarako, berrikuntza didaktiko-metodologikoak abiaraziko ditu, hizkuntza komunikaziorako kompetentzia, gogoeta didaktikoa zein kompetentzia eleaniztuna sustatzeko; berrikuntza horiek, hala, ikastetxeko hizkuntza guztiak aintzat hartuko ditu ikasleek ahalik eta gehien gara ditzaten hizkuntza- trebetasunak. Ekintza horiek lagungarri izan behar dute Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua lantzeko eta garatzeko, ikastetxearen hezkuntza -proiektuaren esparruan.

Deialdiak babestuko dituen jarduerak honako hauek hartzen dituzte barne:

- Prestakuntza-prozesuak, ikastetxeko Hizkuntza-Proiektuaren garapena sendotzeko
- Aurreko puntuari loturiko Ikasgelan egin beharreko praktika pedagogikoa
- Praktika pedagogikoa gauzatzeko beharrezko izan daitezkeen baliabideak.

2. artikulua. – Ikastetxe Onuradunak.

1. Deialdi honetako zuzkiduren onuradun izan daitezke Hezkuntza Sailaren mendeko Ikastetxe Publikoak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa Euskal Autonomia Erkidegoan emateko baimena dutenak.

2. Ikastetxe Publiko Integratuak, ikastetxe osoari eragiten dioten proiektuak aurkezten badituzte, deialdi honi lotutako baliabide hornidurari dagokionez, bereizita hartuko dira.

3. artikulua. - Zuzkidura ekonomikoa eta emate-prozedura.

1. Helburu hori lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura, 470.000 euroko zuzkidura ekonomikoa bideratuko da.

2. Zuzkidura ekonomikoa honela esleituko da:

- 1. artikuluko A jardun-ildoak edo B jardun-ildoak jardungo duten ikastetxeei, diru-zuzkiduraren % 40 dagokie.
- 1. artikuluko A jardun-ildoak eta B jardun-ildoak jardungo duten ikastetxeei, berriz, diru-zuzkiduraren % 60 esleituko zaie.

Banaketa honen bidez, ikastetxeek beren Hizkuntza-Proiektua garatzeko berrikuntza-ekimenak modu eraginkorrean planifikatu eta gauzatu ahal izango dituztela bermatzen da.

Jardun-ildo bakoitzari dagokion esleipen-prozedura egingo da, eta, prozedura horretan, IV. eranskinean ezarritako balorazio-baremoan oinarrituta emango dira dirulaguntzak. Horretarako, aurkeztutako eskabideak aztertuko dira. Aurkeztutako eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko, IV. eranskinean ezarritako balorazio-baremoa kontuan hartuko da.

Deialdi honek ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan esleituko dira 13. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eta baloraziorik handiena lortu duten eskabideak. Horri jarraituz, balorazio-fasean lortutako puntuazioaren beheranzko ordenan



jarraituko du esleipenak, ezarritako onuradunen gehieneko kopurua bete arte, edo, hala badagokio, prozedurari esleitutako diru-zuzkidura agortu arte. Berdinketa gertatuz gero, ikasle bekadunen ehuneko handiena daukan ikastetxeari emango zaio lehentasuna.

Lehenengo, jardun-ildo biak uztartzen dituzten berrikuntza proiektuak ebatziko dira. Esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortzen ez bada, soberakina jardun-ildo bakarreko berrikuntza proiektuetarako zuzkidurari gehituko zaio. Bigarrenik, jardun-ildo bakarreko berrikuntza proiektuei dagozkien prozedurak ebatziko dira. Esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu ez bada, eta bi jardun-ildoko proiekturik badago finantzaketarik lortu ez duena, proiektu horientzako zuzkidura agortu delako, soberakina bi jardun ildoko proiektuetarako zuzkidurari gehituko zaio.

4. artikulua. - Diruz lagun daitezkeen gastuak eta laguntzen zenbatekoa.

1. Zuzkidurak zer proiektu finantzatzeko eman diren kontuan hartuta, proiektu horiek garatu eta gauzatzearekin lotura zuzena duten gastuak ordaintzeko soil-soilik baliatuko dira, eta beteko dute dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikulua.
2. Ikastetxe bakoitzak, deialdi honen 1. artikuluan jasotzen diren jardun-ildoen artean, jardun-ildo bakar baterako edo bietarako laguntza eskatu eta jaso ahal izango du.
3. Ematen diren zuzkidurak gastu hauetarako bakarrik erabiliko dira: proiektuei buruzko irakasleen prestakuntzarekin zuzenean zerikusia duten kostuei aurre egiteko, hala nola, formazioaren kontratazioa zein gelan inplementatzeko baliabidetakoa.
4. Ikastetxe bakoitzari ematen zaion zuzkidura ekonomikoaren zenbateko osoak aukeratutako jardun ildoen garapenerako sartuko diren jardueren guztizko kostua estali ahal izango du, honako baldintza hauekin:
 - a. Gehienez ere, 110 euro ordainduko dira proiektuan jasotako prestakuntza-jarduera bakoitzean emandako ordu bakoitzeko.
 - b. Jarduera egiteagatik egotzitako gastu gisa zenbatu ahalko dira honako hauek:
 - i. Prestakuntza ematen duenak aurkeztutako aurrekontu osoaren kostua.
 - ii. Ikastaroa emango duen irakaslearen joan-etorriak, ostatu hartzeak eta otorduek eragindako gastuak, baldin eta prestakuntza saio horiek beharrezkotzat jotzen badira.
 - c. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen joan-etorrietarako edo jan-edanetarako gastuak.
 - d. Prestakuntzak izaera teoriko-praktikoa izango duenez, praktikan jartzeko beharrezko diren baliabideak ere sar daitezke, betiere aurkeztutako aurrekontuaren arabera, eta inolaz ere ez dira onartuko beste deialdi baten bitartez estaltzen diren gastuak. Guztira, prestakuntza jarduera bakoitzak duen aurrekontu osoaren % 25 baino gehiago ezin izango da eskatu, gehieneko kopurua 1.100 €-koa izanik. Kosturik gabeko prestakuntzen kasuetan, hala justifikatzen bada gehieneko kopuru bera mantenduko da.
5. Deialdi honi lotutako prestakuntza-jarduerak ikasturte bakoitzeko 10 orduko iraupena gutxienez, eta 40 ordukoa gehienez, izan beharko dute.



6. Ikastetxe bakoitzeko gehieneko laguntza 7000 €-koa izango da, baldin eta jardun-ildo bietan aritzeko eskatzen badute; aldiz, jardun-ildo bakar batean aritzeagatik esleituko den zuzkidura ekonomikoa gehienez 4000 €-koa izango da.

5. artikulua. - Prestakuntzaren ezaugarriak.

1. Deialdi honek diruz lagunduko du ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei lotutako irakasleen prestakuntza eta, horren ondorioz, baita gelan inplementatzeko baliabideak ere.
2. A eta B jardun-ildoetarako deialdi honetan proposatzen den prestakuntza-ereduak ikuspegi didaktiko metodologiko bati erantzun behar dio; irakasleek, metodologia aktibo eta berritzaileen bidez hizkuntza komunikazioaren garapenerako hizkuntza-trebetasunen lanketa: irakurmena, idazmena, elkarrekintza, ahozkoatasuna eta bitartekaritza hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala jorra dezaten eta ikasleen komunikazio-kompetentzia garatzeko bidea eman dezaten, betiere prestakuntza-eredua indarrean dagoen curriculumari lotuta.
3. B jardun-ildoan proposatzen den prestakuntza-eredua atzerriko hizkuntzaren irakasleen metodologia eguneratzera bideratuta dago, eta, gutxienez, hizkuntzazkoa ez den arlo edo jakintzagai bat atzerriko hizkuntzan eman behar da.
4. A edota B jardun-ildoko dirulaguntza jasotzen duten prestakuntzek eduki hauek izan ditzakete:
 - a. Hizkuntza-interdependentziaren printzipioa eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala curriculumean.
 - b. Hizkuntza Komunikaziorako Kompetentzia zein Kompetentzia Eleaniztunaren ebaluazioa.
 - c. Hizkuntzen trataera eremuetan.
 - d. Arloetako alfabetatzea zein hizkuntzen trataera integrala esparru diziplinartekoan.
 - e. Kompetentzia eleaniztuna garatzea eta ebaluatzea: bitartekaritza.
 - f. AICLE/CLIL. Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning.
 - g. Irakurketaren didaktika eta irakurketa prozesuak lantzeko estrategia metodologikoak eta ebaluazioa.
 - h. Idazmenaren irakaskuntza eta ebaluazioa
 - i. Hizkuntzen irakaskuntzan hizkuntza teknologien erabilera modu integratzaile eta kritikoan.
 - j. Ahozkoatasunaren irakaskuntza eta ebaluazioa.
 - k. Hezkuntza soziolinguistikoa: lanketa integrala, ikuspegi kritikoa garatuz.
 - l. Euskal kulturaren transmisioa programazioetan: ikuspegi ireki, inklusibo eta kultur artekoa garatuz.
5. Aurreko puntuan deskribatutako prestakuntza-jarduera horietan, proiektuaren ekimen bakoitzean diharduten irakasleen % 80k parte hartu beharko du. Proiektua osatzen duten irakasleen prestakuntza jarduera guztiek gutxieneko irakasle kopuru bat eduki behar dute prestakuntzan inplikaturik, proiektuaren jarraipena bermatzeko.

6. artikulua. - Ikastetxeko berrikuntza proiektuen ezaugarriak.

1. Ikastetxeko Hizkuntza-proiektua garatzen duten berrikuntza proiektuek, jardun-ildo bakarra edo biak hartzen dituztela, atal hauek eduki beharko dituzte I. eta II. eranskinaren arabera.
 - a. **Diagnostikoa**, hauek hartuko dituena:



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Politiketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Políticas Educativas

- a. Barneko eta kanpoko ebaluazioetatik datozen euskarazko, gaztelaniazko eta atzerriko hizkuntzetako ikasleen emaitzen azterketatik etorritako hobekuntza-esparruak.
- b. Hobekuntza-esparruak daudela egiaztatzen duten beste ebidentzia batzuk.
- c. Ikastetxeak egindako ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientzietan.
- b. 2026-2027 ikasturtean garatu beharreko proiektuaren **helburuak**, ikasleen aniztasuna eta egindako diagnostikoa kontuan hartuta.
- c. **Hartzaileak eta ekintzak jasotzen duen plangintza:**
 - a. Hartzaileak, proiektuko jomuga direnak.
 - b. Ikasle-kopuru osoa, taldeak eta hezkuntza-maila guztiak.
 - c. Irakasle-kopuru osoa eta proiektuan parte hartzen duten irakasleak.
 - d. B jardun-ildoari dagokionez, proiektuaren garapenean parte hartuko duten irakasleak. Aurreikusi behar dira, halaber, ikastetxeak, proiektua ezartzearen ondorioz, edukiak atzerriko hizkuntza batean emateko zer beharrian izango duen eta hori asetzeko hizkuntza-gaitasuna egiaztatua duten langileak.
 - e. Proiektuan aurreikusitako **jarduerak**, helburu estrategikoetan oinarrituta.
 - f. **Plangintza** eta **gauzatze-egutegia** eta proiektuaren garapena bermatzeko beharrezkoak diren asteko koordinazio-saioen kopurua barne.
- d. Irakasleentzat aurreikusitako **prestakuntza-jardueren aurrekontua**, baliabide didaktikoei dagokien aurrekontuaren zenbatekoa adierazita.
- e. **B jardun-ildoko berrikuntza-proiektuen kasuan**, zehaztu egin behar da **zer ikasgai** emango den/diren atzerriko hizkuntzan, zenbat ordu izango dituen atzerriko hizkuntzak eta zenbat ordu emango diren beste ikasgai batean atzerriko hizkuntzan.
- f. Atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren derrigorrezko arlo edo jakintzagaiak aukeratzeko orduan, irakasleek kontuan hartuko dute hau: ikasle-talde baten barruan atzerriko hizkuntzan emandako ordu-kopurua berdina izatea denentzat, zein arlo edo jakintzagai aukeratzeko dituzten kontuan izan gabe. **Lehen Hezkuntzan, gutxienez, 4,5 ordu emango dira asteen, eta 5 ordu asteen, Bigarren Hezkuntzan.** Aurreko puntua bermatzen denean, Bigarren Hezkuntzan hautazko irakasgaietan ez dago zertan baldintza hori bete, alegia, hautazko batzuk atzerriko hizkuntzan eskaini daitezke eta beste batzuk ez.
- g. Aurkezten den proposamenak ikastetxearen egoera soziolinguistikoa hartuko du aintzat, eta ezingo du ekarri A eta B ereduetan euskaraz irakatsi beharreko ordu kopurua txikiagoa
- h. izatea. Adierazi behar da, talde bakoitzari dagokionez, zein jakintzagai edo arlori eta zein hizkuntzari kenduko zaizkion orduak edukiak atzerriko hizkuntzan emateko.
- i. Halaber, deialdi honen babesean berrikuntza-proiektua garatzeko zuzkidura ekonomikoak jasoko dituzten ikastetxeek Hezkuntza Sailaren esku jarri behar dituzte bere proiektuaren barruan prestatu dituzten material, unitate didaktiko eta tresnak. Halaber, Hezkuntza Sailak hala eskatuta, egindako praktika onak partekatzeko borondatea adieraziko dute.

7. artikulua. – Betekizunak.

Betekizun hauek bete behar dituzte eskari guztiek:

- a) Ikastetxeko Eskola Kontseiluaren onspena izatea (Euskal Hezkuntza Legearen arabera) proiektua gauzatzeko, eta akordio hori Ikastetxeko Urteko Planean jasotzea.



- b) Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua izatea edo diseinatze bidean egotea, eta haren garapenarekin zerikusia duten jarduerak Ikastetxeko Urteko Planean jasota edukitzea (erantsi dokumentuak eskaerari).
- c) Koordinatzaile bat izendatzea, proiektuaren jarraipena egin dezan.
- d) Proiektuarekin lotutako prestakuntza-ekimenetan parte hartzeko, inplikaturiko irakasle-talde osoa izan behar du; mintegia, departamendua. zikloa. Konpromisoa bereganatzen duen taldeak gutxieneko irakasle-kopuru bat izan behar du proiektua egingo dela ziurtatze aldera. Prestakuntza ekimen bakoitza zuzendutako irakasle-taldearen % 80k parte hartu behar du, gutxienez.

8. artikulua. – Ziurtagiriak

Prestakuntza-jardueretan aritutako irakasle bakoitzaren parte-hartzeak prestakuntza garatzeko eta proiektua gauzatzeko ezarritako orduen % 80 gainditzen badu, ezarritako praktika jarduera lantzen badu eta proiektuaren gauzatzeko memoriak balorazio positiboa jasotzen badu, ofizioz eta banaka 20 edo 30 ordu, prestakuntza ekimenaren arabera (20 ordu 15 eta 30 orduen arabera eta 30 ordu 30-eta 40 orduen arteko prestakuntzetan) ziurtatuko zaizkio irakasleari. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean proiektu-deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, inola ere ez zaio emango irakasle berari 90 ordu baino gehiagoko ziurtagiririk ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako edota Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako institutuko deialdien barruan egindako prestakuntza proiektuengatik.

Ziurtagirian prestakuntza jarduera bakoitzaren izenburua eta jardun-ildoak azalduko da. Era berean, irakasle bakoitzak prestakuntza-jardueran parte aktiboa izan duela ziurtatzeko, Zuzendaritza Taldeak edota Berrikuntzako pertsona arduradunak V. eranskina beteko du.

9. artikulua. - Giza baliabideak eta laguntzak.

1. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari dagokio proiektua abian jartzen dela zaintzea. Koordinazio-lana irakasle arduradunaren esku utziko da, eta hark proiektuaren garapenaren berri emango die aldizka Zuzendaritza Taldeari eta ikastetxeko berrikuntzako pertsona arduradunari.
2. Ikastetxeak, bere burua antolatzeko autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahal izango ditu, hala kopuruari nola banaketari dagokienez, proiektuan duten funtzioarekin bateragarri egiteko, betiere kasuan kasuko ikasketen ikasturte-hasierako Ebazpenetan jasotakoa beteta eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.
3. Ikastetxeek, deialdi honi lotuta proiektuaren bat onartzen zaienean, esparru horretan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen aholkularitza izan dezakete, onartutako proiektuaren aholkularitza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko ikastetxean proiektuaren arduradun izendatutako pertsonarekin batera.
4. Deialdi honen babesean B jardun-ildoak garatzen duten ikastetxeek lehentasuna izango dute 2026-2027 ikasturtean Hizkuntza Laguntzaileak esleitzeko. Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren ebazpenean zehaztuko dira lehentasunak.
5. Deialdi honen babesean emandako baliabide pertsonal eta laguntza guztiak ikasturte bati dagozkie.

**10. artikulua. - Eskabideak aurkeztea eta epea.**

1. Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta ekainak 23an bukatuko da.
2. Eskaria modu elektronikoa aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, datu guztiak behar den moduan beteta. Eskabide-eredua ondoko esteka honetan egongo da eskuragarri: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/linguartea-2026>
3. Eskabidea guztiz osatuta ez badago, errekerimendua egingo zaio eskaria aurkeztu duen ikastetxeari hamar egun naturaleko epean falta dena bete dezan edota nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.
4. Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi hau definitzen duten baldintzak.

11. artikulua. - Organo kudeatzailea.

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetan aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak esleitzeko prozedura.

12. artikulua. - Balorazio batzordea.

Batzorde batek egingo du onartutako eskarien aukeraketa. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

- Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko Zerbitziburua, batzordeburu.
- Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko bi aholkulari, hizkuntza-arloko adituak.
- Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzak izendatutako Hezkuntza Saileko teknikari bat.
- Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko teknikari bat, idazkari lanak egingo dituena.

13. artikulua. - Eskabideak hautatzea.

1. Proiektuen aukeraketa eskariak baloratzeko III. Eranskinean datorren baremoaren arabera egingo da.
2. Kanpoan geratuko dira betekizunak betetzen ez dituzten eskariak, bai eta hauek ere: lan-planaren balorazioaren arabera (IV. eranskineko 1.1 apartatua) gutxienez 7 puntura iristen ez diren proiektuenak.
3. Balorazio-batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkio hezkuntzarako laguntza-zerbitzuari.
4. Balorazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzari zein Ikaskuntza eta Berrikuntza zuzendariari helaraziko dizkie. Proposamen horietan hauek sartuko dira: aukeratutako proiektuen zerrenda eta proiektu bakoitzarentzat proposatzen den zuzkidura ekonomikoa. Gainera, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda sartuko da, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

**14. artikulua. – Ebazpena eta jakinarazpena.**

1. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzari dagokio eskariak ebaztea, balorazio-batzordeak proposatuta. Ebazpenak onartutako eskariak jasoko ditu, eta bakoitzari emandako zuzkidura ere adieraziko du. Interesdunei erabakia bide elektronikoaren bidez jakinaraziko zaie. Ebazpenak kanpoan utzitako eskabideen zerrenda ere jasoko du, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

2. Hamar egun naturaleko epea ezartzen da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ikastetxe interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten ebazpenaren aurka. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzak ebatziko ditu erreklamazioak.

3. Erreklamazioak aztertu ondoren, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzak behin betiko ebazpena emango du, eta azken erabakia ikastetxeei jakinaraziko die aipatutako bideak erabiliz. Ebazpenak jasoko du, batetik, aukeratutako ikastetxeen zerrenda (emandako zuzkidura ekonomikoa) eta, bestetik, ezezkoa eman zaien eskaeren zerrenda, arrazoia aipatuta.

4. Prozedura ebazteko epea amaitu eta ebazpena jakinarazten ez bada, eskaria ezetsi zaiela jo dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. artikulua onduz.

15. artikulua. - Zuzkiduren bateraezintasuna.

Zuzkidura ekonomiko hauek beste edozein helburu bererako laguntza (publiko zein pribatu) eskuratzearekin bateraezinak dira.

16. artikulua. - Zuzkidurak ordaintzea.

Zuzkidura bi zatitan ordainduko da. Honako aurreikuspen hauen arabera izango dira ordainketa horiek:

Lehenengo ordainketa emandako zenbateko osoaren % 50 izango da, eta deialdiko ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean egingo da, tartean laguntzari berariaz uko egin ezean. Epe horretatik kanpo, ikastetxeak aurreikusitako jardueraren bat gauzatuko ez balu, esleitutako diru-zuzkidura itzuli beharko du.

Bigarren ordainketak gainerako zenbatekoa hartuko du, eta ikasturtearen amaieran egingo da, aurkeztuko den justifikazio-dokumentazioa aztertu eta proiektuaren memoriak balorazio positiboa jaso ondoren. Ezezko balorazioa jasoko balu, jasotako diru-zuzkidura itzuli beharko du.

17. artikulua.- Aukeratutako ikastetxeen berariazko betebeharrak:

Honako hauek bete beharko dituzte, edozein kasutan, deialdi honetako zuzkiduren onuradun diren ikastetxeek:

- a. Eman zaien laguntza onartzea eta emandako xederako bakarrik erabiltzea. Ildo horretatik, bost eguneko epean —deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera— ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badute, onartutzat joko da.
- b. Zuzkidura emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuz gero, horren berri ematea Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzari.



- c. Aholkularitza- eta jarraipen-lanetan lankidetzan aritzea esparru horretan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuarekin, Hezkuntzako Ikuskaritzarekin eta Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzarekin.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioetan dihardutela eskatutako informazio guztia ematea, deialdi honen kontura jasotako zuzkidura ekonomikoak direla eta.
- e. Ikastetxeko ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeari buruzko helburuak, erabakiak eta estrategiak hartzea, Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralarekin koherentzia izanik eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Irakurketa Estrategiaren arabera. Egokitzapen hori proiektuaren garapenean egin beharko da, eta 2026-2027ko Ikastetxearen Urteko Planean islatu. Plan hori 2026-2027 ikasturtearen hasierako Ebazpenean ezartzen den egunean entregatuko da.
- f. Aurkeztutako proiektuan aurreikusitako prestakuntza-jarduera guztiak antolatzea eta egitea, 5. artikuluko 4. atalarekin bat etorritik.
- g. Arlo honetan eskumena duen Hezkuntzarako Laguntza-zerbitzuak edota Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak antolatutako A eta B jardun-ildoak berriazko aholkularitza-, jarraipen- eta/edo prestakuntza-jardueretan parte hartzea, deialdi honekin lotuta.
- h. Aurkeztutako eskabidearen arabera, aukeratutako jardun-ildoaren berrikuntza proiektua garatzea eta ikasturtearen amaieran dagokion memoria egitea, 2027ko ekainaren 15a baino lehen entregatuko baita. Memoria horretan zehaztuko dira praktika didaktikoari eta hizkuntzen tratamenduaren hobekuntzari buruzko erabaki guztiak. Era berean, sortutako baliabideak memoriari atxikituko zaizkio.
- i. Zuzkidura ekonomikoa jaso duten ikastetxeak lankidetzan ariko dira Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuarekin eta unibertsitateekin, eta praktiketako ikasleak onartuko dituzte (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatukoak, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterrekoak ere), etorkizuneko irakasleek ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan parte har dezaten.
- j. Konpromisoa hartzea berrikuntza-proiektuen garapenean ikasitakoa hezkuntza-komunitate osoari helarazteko, prestakuntzako saio, jardunaldi edo ikastaroen bitartez, betiere oinarri izanda berrikuntza proiektuaren garapena, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala eta proiektu eleaniztunak.
- k. Ikastetxean berriak diren eta proiektuan parte hartuko duten irakasleei behar besteko laguntza eta informazioa ematea.
- l. Esparru horretan eskumena duen Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren esku jartzea deialdi honen babesean egindako materiala edo sortutako ikas-egoerak partekatzeko, hala badagokio.

18. artikulua. - Laguntzen justifikazioa.

1. Proiektu-modalitateren bat onartu zaien ikastetxeek proiektuaren garapenari eta ebaluazioari buruzko memoria aurkeztuko dute 2027ko ekainaren 15a baino lehen. Memoria eta erantsitako dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Ikastetxe Publikoentzako atariaren bidez: "Herri- ikastetxeak > Deialdiak" (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak>). Horretarako, aplikazio horretan ezarritako inprimaki guztiak osatuko dituzte . eranskina).



2. Memoriak barnean hartu beharko ditu jardueren zerrenda eta haien garapena (edukia, zenbatek hartu duen parte, noraino bete diren proposatutako helburuak).
3. Era berean, ondokoa zehaztuko du memoriak: proiektuan zehar hartutako erabakiak, eta martxan jarritako, praktika didaktikoak eta ebaluazioa.
4. Memoria horrek, gainera, barnean hartuko du ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren ziurtagiri bat, dagozkion irakasleen parte-hartzeari buruzkoa, beren-beregi adieraziko duena guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.
5. Prestakuntza-jardueren kostua zein izan den adieraziko da, jarduera horiek entitate pribatuek eman badituzte, bai eta proiektuari lotutako jarduerak egiteak edo prestakuntzari laguntzeko materiala erosteak zenbateko kostua izan duen ere. Ikastetxeak gorde eta bidali egingo ditu egindako gastuaren egiaztagiriak.
6. Administrazioak frogagiriak, fakturak edo justifikazio agiriak eskatuko dizkio ikastetxe onuradunari, emandako laguntzaren kontura egindako gastuen egiaztagarri. Laguntzak justifikatzeko ez dira kontuan hartuko proiektuaren prestaketa, koordinazio- eta jarraipen-lanekin lotutako gastuak. Fakturak aurkeztu beharreko memoriari erantsiko zaizkio.

19. artikulua. - Jarraipena eta ebaluazioa.

1. Esparru horretan eskumena duen Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren aholkulariak, proiektua koordinatzeko ardura duen pertsonarekin eta ikastetxeko Hizkuntza Batzordearekin batera — halakorik bada—, proiektuaren garapenaren ebaluazioa egingo du, ikasturtean zehar behin, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak ikastetxeen lagin bat aukeratuko du jarraipen zehatzagoa eta ebaluazioa egiteko ikastetxeak. Horretarako, VIII. eta IX. eranskinetako txantiloiak erabiliko dira. Lortutako informazioarekin Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren aholkulariak hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak txosten bat egingo du, eta Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzari bidaliko dio.
2. Ikasturtean zehar gorabehera esanguratsurik gertatuz gero proiektuen garapenean, esparru horretan eskumena duen zerbitzuak Euskaren eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzari eta Lurralde Burutzari emango die horren berri, bigarren zuzendaritza horrek neurri egokiak har ditzan deialdi hau behar bezala bete dadin.
3. Hezkuntzako Ikuskaritzak, ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan, proiektuak zenbateraino betetzen diren kontrolatuko du —proiektuok Ikastetxeko Urteko Planean jasota egon behar dute—. Ez-betetzerik ikusiz gero, Euskaren eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaritzari jakinaraziko dio.

20. artikulua. - Ez-betetzeak.

1. Edozein ez-betetze egiaztatuz gero zuzkidura ekonomikoa ematea eragin zuten baldintzetan, jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra sortuko da.
2. Dirua itzuli beharko da hauetakoren bat gertatuz gero:
